

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**2761** *Huts-zuzenketa, lege organiko honena: 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.*

Hutsak aurkitu ditugu Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoan –2020ko abenduaren 30eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 340. zenbakia–, eta honen bidez zuzentzen ditugu:

23. orrialdean, testu arautzailearen artikuluko bakarraren hamazazpigarren apartatuan, 25.1 artikulua aldatzeko zatian, hau dio:

- «a) Gorputz Hezkuntza.
- b) Geografia eta Historia.
- c) Gaztelania eta Literatura eta, baldin badago, Hizkuntza Koofiziala eta Literatura. Atzerriko Hizkuntza.
- d) Matematika, bi aukera desberdinekin».

Baina hau esan behar du:

- «a) Gorputz Hezkuntza.
- b) Geografia eta Historia.
- c) Gaztelania eta Literatura eta, baldin badago, Hizkuntza Koofiziala eta Literatura.
- d) Atzerriko Hizkuntza.
- e) Matematika, bi aukera desberdinekin».

62. orrialdean, testu arautzailearen artikuluko bakarraren laurogeigarren apartatuan, hamargarren xedapen gehigarriaren 4. apartatua aldatzeko zatian, hau dio: «4. Bederatzigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan araututako sartzeko aukera alde batera utzi gabe, musikako eta arte eszenikoetako katedradunen kidegoan sartzeko...». Baina hau esan behar du: «4. Bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan araututako sartzeko aukera alde batera utzi gabe, musikako eta arte eszenikoetako katedradunen kidegoan sartzeko...».

78. orrialdean, testu arautzailearen azken xedapenetako lehenengoaren bederatzigarren apartatuan, zehazki 1. apartatuaren laugarren lerroan, hau dio: «Ikastetxearen titularraren hiru ordezkari. Irakasleen lau ordezkari». Baina hau esan behar du: «Ikastetxearen titularraren hiru ordezkari. Irakasleen lau ordezkari».